

Merezi dugun eskola



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Etsipenez, beste behin ere, utzi diot gaiaz informazioa irakurtzeari. Bataila galdu (zein irabazi) batetik bueltan datorren astoa bezala noa nire kortara. Ni galtzaileen bandokoa: Euskal Eskola Publikokoa. Baina irabazleen bandoko astoak irabazi al du? Nago denok galdu dugula.

Izan ere, nire ustez, ospatzeko moduko garaipen bakarra izango litzateke bateko eta besteko astoek bat egiteko moduko “banda” bat osatu, eta segregazioa, ez euskalduntzea eta erlijioaren kontra joko bagenu. Eta, ondorioz, erkidegoko ume gehienak eskola euskaldun, anitz, laiko, hezkidetzaille, inklusibo eta publiko batean matrikulatuko balira etorkizunean.

Ez da gertatuko.

Denek ez dugu eskola eredu bera nahi, ados. Batzuek kristau eskola, era honetako edo hartako eskola bat, edo ikastolen elkarte nahiago dute, ados. Baina publikoa kaltetuta irten da berriz (EAE n ume gehien hezitzen eta euskal-

duntzen dituen eskola).

(Barka, ez noa sartzera “espainiar publikoa” ez dela “euskal publikoa” eta halakoetan –ikastolak ere espainiar sistema horrexen parte dira, EAE espainiar autonomia bat den gisa berean–). (Besterik gabe, Gabriel Aresti frankismo garaian(!) zegoen ikastolako kuoten kontra, eta neu 2022an ere bai).

Euskara ofiziala ez den lekuetan ikastolak egon daitezen, dirua eta lan militantea? Ados. Ikastolen ondarea (historia, pedagogia, kurrikuluma...) edozein eskolak baliatu? Ados.

Gure bandokoei: ez nago ikastolen kontra, eta ez zait gustatzen euskal eskola publikoaren “defentsan” ikastolak iraintzea.

Ikastolei: euskaldunak, eskandinaviar blondak, korearrak eta swuahili beltzek bakoitzak bere kortara joaten segituko dute.

Beharbada, Euskal Herria estatua izan baino lehen bihurtu beharko dugu ikurrina sukaldeko trapu. ●

Heriotzarik ez, eskubideak guztiontzat



**ARANTZA
GUTIERREZ PAZ**
EHU-KO
IRAKASLEA

Europara heldu nahian pertsonak hiltzea ezin dela onartu salatzeke, eta behin gurera iritsita, europar herritarren eskubide berberak izan ditzaten exijitzeko, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka lan egiten duten elkarteetako militanteak bilduko dira Bruselan irailaren 30ean eta urriaren 1ean.

2016an abiatu zen lehenengo Mugak Zabalduz karabana, orduan Greziara joan ziren hirurehun pertsona –ehun baino gehiago Hego Euskal Herrikoak–. Urtez urte, muga ezberdinetara salaketa eramateaz gainera, European ari diren beste erakunde batzuekin amarauna ehuntzen joan da. Horren emaitza da Bruselan antolatu den topaketa, non tokian toki solidarioek egiten dituzten ekintzak ezagutzeaz gainera, Europa ha-

rrera herria izan dadin beste politikak exijituko diren. Ukrainiako errefuxiatuekiko politikak agerian uzten du nahi bada posible dela.

Auzia, ordea, ez da soilik mugak zabaltzea. Behin European, pertsona migratzaile askok urteak ematen dituzte haien egoera administratiboa erregularizatu nahian. Paperik ez izateak oso egoera zaurgarrian uzten ditu, esplotatuak izateko arrisku larrian, oinarritzko eskubiderik gabe, bigarren mailako herritar bihurtuta.

Baina, gero eta gehiago gara “gure izenean ez” oihukatzen dugun Europako herritarrok, eskuinak duen xenofobia eta gorrotaren mezuaren gainetik harre- ra herria garelako aldarrikatzen dugunok, baita Euskal Herri- tik ere. ●